



EGITURA.....	2
Academica-eren EDUKIAK.....	2
DOKUMENTUAK GORDETZEA Academica-en.....	3
Nork gorde ditzake dokumentuak Academica-en.....	3
Nola utzi dokumentuak Academica-e biltegian.....	3
Jada Academica-en gordailuan dauden fitxategiak ezabatzea eta aldatzea.....	4
Academica-en ARGITARATZERA BEHARTZEN DUTEN LEGE ETA ARAUAK.....	5
Academica-eren DOKUMENTUETARAKO SARBIDEA.....	5
FORMATUAK.....	5
METADATUAK.....	6
DATUAK.....	6
GORDETZEA.....	6
Academica-eren HEDAPENA.....	7



Academica-e Nafarroako Unibertsitate Publikoaren biltegi instituzionala da. Unibertsitate komunitateko ekoizpen zientifikoa eta akademikoa biltzen du, webgunearen bidez kontsultarako sarbide irekia izan dezan. Horrela, ahalik eta gehien sustatzen da ikerketaren eta jarduera akademikoen ikusgaitasuna eta hedapena. Academica-ek bere edukietarako sarbidea eman nahi du eta luzaroan gorde edukiak.

EGITURA

Bost multzo nagusitan egituratzen da:

1. Ikerketa eta ekoizpen zientifikoko bildumak: aldizkari zientifikoetan argitaratutako artikuluak eta NUPEko ikertzaileek biltzarretan aurkeztutako materialak, liburuak, liburu atalak, lan dokumentuak eta doktoretza tesiak biltzen dituzte.
2. NUPEko biltzar eta argitalpenak: NUPEk antolatuta eta NUPen egin diren biltzarretan aurkeztutako materialak, eta NUPEk argitaratzen duen Huarte de San Juan aldizkariako artikuluak biltzen dituzte.
3. Sailak eta ikastegiak: komunitate hau NUPen sailetan eta ikastegietan azpizatitzen da. Haietako bakoitzetik irits daiteke bertako irakasleek eta ikertzaileak sortutako irakaskuntzako materialak eskuratzera.
4. Antzinako funtsa: Unibertsitatearen ondare bibliografiko digitalizatuak osatzen du.
5. Irakaskuntza bildumak: ikasketak amaierako lanen bildumek, eta gradu eta master amaierako lanen bildumek osatzen dituzte.

Multzo edo komunitate horiek azpikomunitatetan azpizatitzen dira bildumetara iritsi arte, eta hor daude metadatuaren erregistroak (itemaren identifikazio datuak) dokumentuak beren testu osoak dituztela.

Academica-eren EDUKIAK

Academica-en unibertsitateko komunitateak sortutako mota guztietako dokumentuak onartzen dira, ondoko baldintza hauekin:

- Haien egileak edo egilekideek Unibertsitateko kide izan behar dute, edo izandakoak, edo NUPen finantzabidea jasotakoak.
- Gaia zuzenean lotu behar zaio Unibertsitatearen jarduera akademikoa eta zientifikoari. Baztertuak gelditzen dira Unibertsitatearen jarduera instituzional, ikasketako, akademikoa eta ikerketakoak ez diren iritzi pertsonalak azaltzen dituzten dokumentuak.
- Formatu digitalean egon behar dute.
- Ez dira iraupen laburreko dokumentuak izango.
- Osorik egon behar dute. Lan akademikoen kasuan, gainera, betetzea ikastegi bakoitzaren Arautegian ezarritako aurkezpen baldintzak.
- Egilea lanaren gaineko eskubideen titularra izan behar da.

**Gorde daitezkeen dokumentuak:**

- Ikasketen Amaierako Proiektuak.
- Master eta gradu amaierako lanak.
- Aldizkarietako artikuluak: gorde daitezke argitaratu gabeko edo argitaratutako artikuluak, ahal dela postprint bertsioa (bi ebaluatzailearen balioespena daukana) betiere argitaletxearen politikak horretarako aukera ematen badu. Pre-print bertsioa (ebaluatzaileen balioespena ez daukana) gordetzen den kasuetan, Academica-en azalduko da metadatuen erregistroan.
- Biltzarretan eta bilera zientifikoetan aurkeztutako materialak: ponentziak, posterrak, aktak, etab.
- Liburuak eta liburuen kapituluak.
- Unibertsitateak argitaratutako argitalpenak.
- Unibertsitatean defenditutako doktoretza-tesiak.
- Jatorrizko bertsio digitala ez daukaten lanak, eskaneatuta.
- Patenteak.
- Txosten teknikoak, oroitidazkiak, azterlanak.
- Lanerako dokumentuak.
- Mapak.
- Aipamenak.
- Programa informatikoak.

Materialak edozein hizkuntzatan gorde daitezke, hala ere, gaztelaniaz, euskaraz edo ingelesez egitea gomendatzen da.

DOKUMENTUAK GORDETZEA Academica-en**Nork gorde ditzake dokumentuak Academica-en**

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaile eta irakasle guztiek. NUPeko ikertzaileek Unibertsitate honetako kide izan aurretik argitaratutako lanak onartzen dira Academica-en, betiere beren aurreko afiliazio-instituzioen baimenak badituzte.

Ikastegietan eta sailetan eskumena duten langileek ere badute dokumentuak gordetzea.

Nola utzi dokumentuak Academica-e biltegian

Academica-e biltegia autoartxiboan oinarritzen da, hau da, egile bakoitzak bere lanak uzten ditu, nahiz eta artxibo delegatuaren aukera ere eman, hau da, erreferentzia bibliografikoak dagozkion fitxategiekin helbide honetara bidaltzea: **academica-e@unavarra.es**.

Egile batek nahi duenean bere lan bat utzi Academica-e biltegian, bere erabilzaile eta bere pasahitz instituzionalarekin identifikatu beharko du, eta "Zerbitzu pertsonalizatuak", "NUPeko kideak" klikatu; gero, ezkerreko menuan "Bidalketak: autoartxiboa" klikatu behar du, inprimaki bat bete lanaren datu bibliografikoekin, eta dagokion fitxategi elektronikoa igoko du.



Dokumentua utzi denean, **Academica-e** biltegiaren administratzaileek sartutako datuak berrikusiko dituzte, erregistro bibliografikoa osatuko dute eta dokumentua balioztatu eta argitaratuko dute.

Lana Academica-e biltegian uzten duen egilea lanaren egiletzaren eta hirugarrenei utzitako ustiapen-eskubiderik ez haustearen erantzule izango da. Halaber, [baimen](#) bat izenpetu behar du, Unibertsitateari baimena emanaz dokumentuaren edukia sarrera irekian zabaltzeko, eskusiboki ikerketarako eta irakaskuntzan laguntzeko helburuekin zabaltzeko eta jakinarazteko. Unibertsitateak inolaz ere ezin du lanaren merkataritza asmoko erabilerarik egin. Egileak, hortaz, bere eskubide osoak mantentzen ditu, eta hirugarren batzuei lagatzeko aukera dauka, modu ez eskusiboan.

[Lizentzia](#) honek ez du galarazten lana beste hainbat tokitan argitaratzea. Gaur egun, aldizkari gehienek onartzen dute artikulua baten postprint bertsioa (berraztertua) biltegi instituzional irekietan uztea.

[Sherpa-Romeo](#) eta [Dulcinea](#) direktorioek informazioa daukate aldizkariak artikulua web-orrialdeetan et sarrera irekiko biltegiaren autoartxibatzeaz daramaten politikez. Editorearen web-orrialdea ere kontsultatzen ahal da.

Beren lanak Academica-e biltegian uzten dituzten egileek obra babesten ahal dute aukeratzen duten lizentziarekin ([Creative Commons](#), [GNU](#), [Coloriuris](#)...). Metadatoen erregistroan ez badira zehazten lizentzia eta bere terminoak, dokumentuak eskubide guztiak erreserbatuta edukiko ditu.

Lanaren testu guztia igo ote daitekeen zalantzazkoa bada, Liburutegiarekin jartzen ahal zara harremanetan, telefonoz: 948168974, edo academica-e@unavarra.es helbidearen bidez.

Jada Academica-en gordailuan dauden fitxategiak ezabatzea eta aldatzea

Jada Academica-en gordailuan dauden fitxategien aldaketak edo ezabaketak Academica-eko administratzaileek egiten dituzte.

Ikertzaile batek artikulua baten bertsio edo argitalpen berri bat sartu nahi badu, erregistro berri bat balitz bezala egin behar du. Gordailuko administratzaileek arduratuko dira biak lotzeaz eta eman beharreko informazioa emateaz.

Academica-eko erregistroen aldaketak edo ezabaketak egiteko aukera egongo da soilik kasu hauetan:

Fitxategiak akatsak baditu bere edukian edo problema teknikoak agertzen baditu.

- Academica-eren izaerarako egokiak ez badira.
- Beste lan batzuen plagio direla atzematen bada.
- Egilearen eta/edo editorearen eskubideak urratzen badira.



Academica-en ARGITARATZERA BEHARTZEN DUTEN LEGE ETA ARAUAK

[Academica-en](#) lanak eta argitalpenak gordetzea boluntarioa da, zenbait kasutan egileak behartuta egon badaitezke ere finantzatzen dituzten agentzien, legeen edo Unibertsitatearen beraren arauen bidez:

- Ikerketa proiektuen emaitza diren eta funts publikoekin finantzatutako lanak, [Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 2011ko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 37. artikulua](#)ren arabera.
- Proiektuen emaitza moduan [Horizonte 2020](#) barnean argitaratu diren lanak, bai eta haren aurrekoan, [Sarbide Irekiko VII. Programa](#) Europar Batasunaren Esparruko Proiektu Pilotuan.
- Unibertsitatean defendatutako doktoretza tesiak, [2011ko urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretua](#), [doktoretzako ikasketa ofizialak arautzen dituenaren arabera](#). 14.5 eta 14.6 artikulua.
- [Gradu amaierako lanak eta master amaierako lanak](#).

Academica-eren DOKUMENTUETARAKO SARBIDEA

Academica-en gordetzen diren dokumentuak hainbat sarbide modalitate dituzte, Unibertsitateak ezarritako baldintzen eta argitaratuak izan diren aldizkarietako argitalpen politiketan ezarritako baldintzen arabera. Hala, honelakoak aurkitzen ditugu: sarbide irekian dauden dokumentuak, unibertsitateko kideentzat bakarrik sarbide murriztuan daudenak eta sei hilabeteetatik bost urte bitarteko sarbide bahitura daukatenak. Kasu hau informazio konfidentziala daukaten dokumentuentzat, patente bati lotuak egon daitezkeenentzat edo argitaletxeek ezarritako sarbide murriztua daukatenentzat aurreikusia dago.

FORMATUAK

DSpace, Academica-eren euskarri den softwarea, formatu ugariaren euskarri izateko gai da, baina erabilerraztasunagatik eta modu digitalean gordetzeko arrazoiengatik, PDF formatua erabiltzea gomendatzen da. Ikus-entzunezko materialen kasuan, mp4 formatua erabiltzea gomendatzen da.

Beste formatu batzuetarako, harremanean jarri gordailuaren kudeaketariekin.

Dokumentu nagusi bat gehi material osagarriak daukaten lanetarako, dokumentu nagusia pdf formatuan aurkeztuko da, eta material osagarriak formatu trinkotua duen fitxategi bakar batean sartuko dira.

Fitxategien neurriari dagokionez, ezarritako gehienezko muga 512 MB da.



METADATUAK

Baliabide bat deskribatzen duten datuak dira metadatuak (egilea, izenburua, data, argitaletxea, formatua, sarbidea...). Haien xedea da erraztea identifikazioa, kokapena, berreskuraketa, egiaztapena, gordetzea eta interoperatibitatea beste gordailu batzuekin.

Academica-ek Dublin Core datu eredua erabiltzen du bere dokumentuak deskribatzeko, gordailuetan ezagutzen den eta gehien erabiltzen dena.

Edozein erabiltzailek doan dauka sarbidea Academica-eren metadatueta. Metadatu horiek berriz erabil daitezke baimenak jaso beharrik gabe irabazi asmorik gabeko helburuetarako, OAI identifikatzailea edo Academica-eren metadatuaren jatorrizko erregistroko esteka adierazten bada.

DATUAK

Academica-en gordetako edukiak doako sarbidekoak dira erabiltzaile guztientzat.

Erregistroetako testu osoen kopia egin daitezke erreproduktzioarako, ikusteko edo edozein formatutan irudikatzeko edo edozein euskarritan ikerketarako, ikasketarako, hezkuntzarako, edo merkataritzakoak ez direnetarako, aurretik baimenak eskatu behar izan gabe, betiere baldintza hauekin:

- Egileen izenak, izenburua eta xehetasun bibliografiko guztiak ematea.
- Hiperesteka bat eta/edo jatorrizko metadatueta URL bat sartzea.
- Edukian aldaketarik ez egitea.
- Erregistroak aldi behin jaso ahal izatea roboten bidez, indexazioa egiteko edo aipuen analisia egiteko.

Testu osoen erregistroak ezin dira saldu ezein formatu ez euskarritan, **ustiapen eskubideen titularren baimen formala izan gabe**.

GORDETZEA

Erakunde-biltegiaren helburuetako bat unibertsitatearen ekoizpen zientifiko eta akademikoa gordetzea da. Hortaz, Academia-ek bermatuko du erregistro bibliografikoetarako eta haien fitxategietarako irakurgarritasuna eta erabilerraztasuna.

Horretarako, kontserbazio politika bat garatzen du, honela:

- Backups.
- Inguru teknologikoaren jarraipena, formatuen edo software zaharkituen migrazioak aurreikusteko.



Academica-eren HEDAPENA

Academica-eren dokumentuak berreskuragarriak dira hauen bidez: [Recolecta](#), [Hispana](#), [Tesis Doctorales en Red](#), [DART-Europe](#), [BASE](#), [OpenAIRE](#), [Google Scholar](#), [OpenDOAR](#), [Registry of Open Access Repositories](#).